



ZIZURKILGO UDALA

ALKATEAREN DEKRETUA 123/2016 zk.

Zizurkilen, 2016ko uztailaren 26an

"Utxeta Promozioak, SL" merkataritza-enpresak sustatutako hiri-antolamenduko plan orokorreko "Etxe Maite" 28. eremuko hiri-antolamenduko plan bereziko dokumentua ikusi dugu, José Eugenio Caro eta María Silva Pérez arkitektoek 2016ko ekainean idatzia.

Udal-zerbitzuek egindako txosten teknikoa (uztailaren 11koa) eta juridikoa (uztailaren 14koa) ere ikusi ditugu. Txosten teknikoaren arabera, adierazitako puntuak egokitzea falta da, baina hori ez da arazoa dokumentuari hasierako onarpena emateko.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 95. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa kontuan hartuta, eta Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 21.j) artikuluan ezarritako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehenengoa: Hasierako onarpena ematea "Utxeta Promozioak, SL" merkataritza-enpresak sustatutako "Etxe Maite" 28. hirigintza-jarduerarako eremuko hiri-antolamenduko plan bereziari, José Eugenio Caro eta María Silva Pérez arkitektoek 2016ko ekainean idatzitako dokumentuari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoko tirada handieneko egunkarietako batean iragarki bat jarriz, 20 eguneko

Visto la presentación del documento de Plan Especial de Ordenación Urbana del Area 28 "Etxe Maite" del PGOU promovido por la mercantil "Utxeta Promozioak, S.L." y redactado por los arquitectos José Eugenio Caro y María Silva Pérez en junio de 2.016.

Vistos los informes técnico (11 de julio) y jurídico (14 de julio) emitidos por los Servicios Municipales, desprendiéndose del primero de ellos la necesidad de ajustar las cuestiones que se indican sin que las mismas constituyan impedimento para la aprobación inicial del documento.

Considerando lo dispuesto por los artículos 95 y ss. de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo del País Vasco, y en uso de las facultades establecidas por el artículo 21.j) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local,

RESUELVO

Primero.- Aprobar inicialmente el Plan Especial de Ordenación Urbana del A.I.U. 28 "Etxe Maite" promovido por la mercantil "Utxeta Promozioak, S.L." y redactado por los arquitectos José Eugenio Caro y María Silva Pérez en junio de 2.016.

Segundo.- Someter el expediente al trámite de información pública, con publicación de los anuncios correspondientes en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y en uno de los periódicos de mayor tirada en el territorio histórico,



ZIZURKILGO UDALA

epean, azkena argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan, espedientea interesdunen eskura egongo da, Hirigintza Zerbitzuaren udal-bulegoetan (Teodoro Hernandorena, 6), alegazioak egin ahal izateko.

durante un plazo de 20 días contado a partir del día siguiente al de su última publicación, plazo durante el cual el expediente se encuentra a disposición de los interesados en las oficinas municipales del Servicio de Urbanismo (Teodoro Hernandorena, 6) a efectos de formulación de alegaciones.

Hirugarrena.- Araututako eremuan lizentziarik ez ematea, plan berezia behin betiko onartu arte.

Tercero.- Determinar la suspensión del otorgamiento de licencias en el ámbito ordenado hasta la aprobación definitiva del Plan Especial.

Laugarrena.- Ebazpen honen berri ematea "Utxeta Promozioak, SL" merkataritza-enpresari.

Cuarto.- Notificar la resolución a la mercantil «Utxeta Promozioak, S.L.».



ALKATEA

Nire aurrean,
IDAZKARIA